PASAIAKO UDALA
www.pasaia.eus

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext. 930**
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**IDAZKARITZA**
idazkaritza@pasaia.net

T020100

# DEKRETUA

**SAILA: IDAZKARITZA** **Nº ________________ zk.**

| ALKATETZAREN EBAZPENA | RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA |
| --- | --- |
| Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n COVID-19ak eragindako osasun publikoaren larrialdi-egoera nazioarteko pandemia gisa izendatu zuen. Gertakarien bilakaerak berehalako neurri eraginkorrak hartzea eskatzen du, egoera honi aurre egiteko. | La Organización Mundial de la Salud elevó el pasado 11 de marzo de 2020 la situación de emergencia de salud pública ocasionada por el COVID-19 a pandemia internacional. La evolución de los hechos requiere la adopción de medidas inmediatas y eficaces para hacer frente a esta coyuntura. |
| Krisi larri honi erantzuna ematearren, Gobernuak alarma-egoera ezarri zuen honako dekretu honen bidez: 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duena. Dekretu horretan hainbat neurri ezartzen da, besteak beste, pertsonen zirkulazio librea murritzen duten hainbat neurri (7. artikulua). Era berean, dekretuan agintzen da neurriak har daitezela, telelana ahalbidetzeko, eta organo eta erakundeek tresna telematikoekin lan egin dezaten ahalbidetzeko. | Para dar respuesta a esta grave crisis, el Gobierno decreto el estado de alarma a través del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19. Entre las medidas acordadas, se encuentran aquellas restrictivas de la libre circulación de las personas (art. 7). A la vez, conmina a adoptar medidas que posibiliten el teletrabajo y el funcionamiento de órganos e instituciones con instrumentos telemáticos. |
| Deklaratu den osasun-krisia ezinbesteko ezohiko egoera da, arrisku kolektibo larrikoa, toki-erakundeetako kide anitzeko organoen bilkuren araubide presentzialaren funtzionamendu normala neurriz kanpo eragozten edo zailtzen duena; izan ere, alarma-egoerak pertsonen zirkulazio askea mugatzen du, eta neurriak hartzeko agintzen du, telelana ahalbidetzeko eta organo eta erakundeek tresna telematikoekin lan egin dezaten ahalbidetzeko. | La situación de crisis sanitaria declarada supone una situación excepcional de fuerza mayor y de grave riesgo colectivo que de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de este , toda vez que el estado de alarma establece medidas restrictivas en relación con la libre circulación de las personas y conmina a adoptar medidas que posibiliten el teletrabajo y el funcionamiento de órganos e instituciones con instrumentos telemáticos. |

ESKUc1036967-8361-41e6-adde-1043b356d52f

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext. 930**
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**IDAZKARITZA**
idazkaritza@pasaia.net



| | |
|---|---|
| COVID-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloan premiazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak bigaren azken xedapenak aldatu egiten du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikulua, eta 3. atal bat eransten dio: | El Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al COVID-19, en su Disposición final segunda modifica el citado artículo 46 de Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del régimen local, añadiendo un nuevo apartado 3 al artículo 46, con la siguiente redacción: |
| *Edonola ere, toki-erakundeetako kide anitzeko organoen bilkuren araubide presentzialaren funtzionamendu normala neurriz kanpo eragozten edo zailtzen duten ezinbesteko egoerak, arrisku kolektibo larriko egoerak edo katastrofe publikoak gertatzen direnean, organo horiek, indarreko araudiaren arabera deialdiaren ondorioetarako alkateak edo presidenteak edo haien ordezkoak deskribatutako egoera gertatzen dela ikusi ondoren, bilerak egin, eta erabakiak hartu ahal izango dituzte: Baliabide elektroniko eta telematikoak, baldin eta partaideak Espainiako lurraldean badaude eta egiaztatuta badago. Halaber, haien arteko komunikazioa ziurtatu beharko da, denbora errealean, bilkuran zehar, eta beharrezko baliabideak jarriko dira haien izaera publikoa edo sekretua bermatzeko, kasu bakoitzean legez dagokionaren arabera.* | *En todo caso, cuando concurran situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán,apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.* |
| *Aurreko ondorioetarako, baliozko bitarteko elektronikotzat jotzen dira segurtasun teknologikoa, kideen parte-hartze politiko eraginkorra, eztabaidaren baliozkotasuna eta hartzen diren erabakien bozketa behar bezala bermatzen duten audiokonferentziak, bideokonferentziak edo bestelako sistema teknologiko edo ikus-entzunezkoak.* | *A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten.* |

ESKUc1036967-8361-41e6-adde-1043b356d52f

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 930
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

IDAZKARITZA
idazkaritza@pasaia.net



| | |
|---|---|
| Alarma-egoeraren iraupena luzatuz joan da, eta aurreikusten da hurrengo ohiko udalbatzarra alarma-egoera indarrean den aldian egin beharko dela. | La duración del citado estado de alarma ha sido objeto de sucesivas prórrogas, preveyendose que la siguiente sesión plenaria ordinaria tenga lugar durante la vigencia del estad de alarma. |
| Beraz, kontuan hartu dugu zer egoeratan gauden, eta, aintzat hartu dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.3. artikuluak aukera ematen duela bilkurak bitarteko elektroniko eta telematikoekin egiteko, eta erabakiak urrunetik hartzeko orain bizi duguna bezalako ezohiko egoeretan. | A la vista de esta situación y atendiendo a la situación sanitaria que concurre, y vista la posibilidad que otorga el artículo 46.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local para celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos en situaciones excepcionales como la que ahora vivimos. |
| Horiek horrela, eta espediente amaituen zerrenda kontuan izanik, eta indarrean diren arauek ematen dizkidaten eskumenak erabilia, honako hau | Vista la relación de expedientes conclusos, y de conformidad con las atribuciones que me confiere la normativa vigente, |
| **EBAZTEN DUT** | **RESUELVO** |
| LEHENA. 2020ko maiatzaren 26rako ohiko udalbatzarra deitzea, bideokonferentzia bidez 18:00etan. | PRIMERO. Convocar la próxima sesión ordinaria del Pleno que se celebrará a través de videoconferencia el día 26 de mayo de 2020, a las 18.00 horas. |
| BIGARRENA. Honako gai-zerrenda ezartzea: | SEGUNDO. Fijar el siguiente |
| **GAI-ZERRENDA** | **ORDEN DEL DÍA** |
| 1.- Udalbatzarraren funtzionamendu-arauak onartzea. | 1.- Aprobación de las normas de funcionamiento del Pleno. |
| 2.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2020-01-28koa. | 2.- Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior número 1 de fecha 28-01-2020. |
| OGASUNA | HACIENDA |
| 3.- Udalaren eta erakunde autonomoen 2019ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea. | 3.- Dación de cuenta de la liquidación del presupuesto del ayuntamiento y organismos autónomos 2019. |
| 4.- 2019ko likidazioari dagokion egonkortasunaren ebaluazioari eta gastu-arauari buruzko txostenaren berri ematea. | 4.- Dación de cuenta de informe de evaluación de estabilidad y de regla de gasto de la liquidación 2019. |

ESKUc1036967-8361-41e6-adde-1043b356d52f

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 930
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

IDAZKARITZA
idazkaritza@pasaia.net



| | |
|---|---|
| 5.- Ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko txostenaren berri ematea. | 5.- Dación de cuenta de informe sobre el Periodo Medio de Pago. |
| 6.- Kreditu-aldaketen berri ematea. | 6.- Dación de cuenta de modificación de créditos. |
| KIROLAK: | DEPORTES: |
| 7.- Udal instalazioak erabiltzeko udal araudia. Hasierako onarpena. | 7.- Reglamento municipal del uso de las instalaciones deportivas. Aprobación inicial. |
| GIZARTE EKINTZA | SERVICIOS SOCIALES |
| 8.- Kudeaketa-gomendioa arautzeko hitzarmena onartzea, mendekotasunaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen zainketaren kalitatearen jarraipena egiteko. | 8.- Aprobación de Convenio de regulación de la encomienda de gestión para la realización del seguimiento periódico de la calidad de los cuidados recibidos por las personas que reciben prestaciones económicas de dependencia. |
| HIRIGINTZA | URBANISMO |
| 9.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra formulatzeko akordioa. | 9.- Acuerdo de formulación del Plan General de Ordenación Urbanística. |
| 10.- Hasierako onarpena ematea espedienteari eta nahitaezko desjabetze proiektuari, “2.02.3 Zamatete” Hiri Eremuaren baitako “AA.2.02.3” jarduera esparru bakartuari dagokionari. | 10.- Aprobación inicial del expediente y proyecto de expropiación forzosa del ámbito de actuación aislada “AA.2.02.3” del área urbana “2.02.3 Zamatete”. |
| 11.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalen arteko elkarrizketarako espazio bat sortzeari buruzko mozioa, PSE-EE eta EAJ-PNV taldeek aurkeztua. | 11.-Moción sobre creación de un espacio de diálogo entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, presentada por los grupos políticos PSE-EE y EAJ-PNV. |
| 12.- EH BILDUk aurkeztutako mozioa, Udalen Finantzaketari buruzko Foru Funtsari buruzkoa. | 12.- Moción presentada por EH BILDU, relativa al Fondo Foral de Financiación Municipal. |

ESKUc1036967-8361-41e6-adde-1043b356d52f

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
**Luz./Ext. 930**
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**IDAZKARITZA**
idazkaritza@pasaia.net



| | |
|---|---|
| 13.- Alkatetzaren gestioak. Galderak eta eskariak. | 13.- Gestiones de Alcaldía. Ruegos y Preguntas. |

Pasaian, 2020ko maiatzaren 21ean

ALKATEA
Izaskun Gómez Cermeño

Nire aurrean
IDAZKARIA

Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ESKUc1036967-8361-41e6-adde-1043b356d52f**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Titulo:** | 2020IUDA0001-Dekretua/Ebazpena |
| --- | --- |

Sinatzailea 1/Firmante 1: REKONDO PEREZ UNAI - 72490342T
Data/Fecha: 2020/05/21 13:49:30

Sinatzailea 2/Firmante 2: 15980525X GOMEZ CERMEÑO (R: P2006900A)
Data/Fecha: 2020/05/21 13:52:32